

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AYUNTAMIENTO DE LLODIO

Tokiko Gobernu Batzarra. 1152. Dekretuaren hirugarren aldaketa, 2023ko ekainaren 27koa, osaera aldatzeagatik

2023ko ekainaren 27an, alkate-udalburuaren 1152 zenbakiko Dekretua eman zen, Tokiko Gobernu Batzarra eratzeko, alkate-udalburuaren eskumenak eskuordetzeko eta ohiko bilkurak egiteko eguna eta ordua zehazteko.

Ondoren, 0033 Dekretua eman zen, 2024ko urtarrilaren 9koa, lehenengo aldaketa egiteko, eta 1577 Dekretua, 2024ko irailaren 25ekoa, bigarren aldaketa egiteko.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 23. artikulua eta Udal Araudi Organikoaren (UEO) 42,2 artikulua adierazten dutenez, Tokiko Gobernu Batzarra alkate-lehendakariak eta zinegotzi-kopuru batek osatzen dute, gehienez ere korporazio legezko kide-kopuruaren herenak.

Ikusi egin da TAOLen 23,1 artikuluan eta UAAren 42,1 artikuluan adierazten dela alkate-udalburuari dagokiola horiek izendatu eta bereiztea, baita Osoko Bilkurari hori aditzera ematea ere.

Kontuan hartu da TAOLen 23,2 artikuluan eta UAAren 32, 42 eta 43 artikuluen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrari esleitu zaiola alkate-udalburuari laguntza emateko eskudantzia alkate-udalburuaren eskudantzien erabilerari dagokionez, baita alkate-udalburuak edo beste edozein organok eskuordetzan ematen dizkion eskudantziak eta legeetan esleitu zaizkionak erabiltzekoa ere.

Ikusi da Idazkaritza Nagusiaren 2025eko ekainaren 30eko txostena (ALK 25/13).

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 21. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, alkate-udalburuak hau

EBATZI DU

LEHENENGOA. Alkate-udalburu honen 2023ko ekainaren 27ko 1152 zenbakiko Dekretuaren bidez eratutako Tokiko Gobernu Batzarraren osaera aldatzea, honela:

Hau agertzen da:

— Nagore Gomara Picaza (EHBILDU udal talde politikoa).

Agertu behar du:

— Iñigo Martínez Cerrillo (EHBILDU udal talde politikoa).

Aurreko guztiaren ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarraren osaera, alkate-udalburu honen lehendakari zapean, honako hau da:

— Iñigo Martínez Cerrillo (EHBILDU udal talde politikoa).

— Ander Larrínaga Saiz (EAJ/PNV udal-talde politikoa).

— Maite Cortazar Agüera (EAJ/PNV udal-talde politikoa).

— Álvaro Barrios Medina (OMNIA udal-talde politikoa).

— Nerea González García (OMNIA udal-talde politikoa).

Indarrrik gabe geratuko dira aurreko izendapenak eta dekretu honen edukiaren aurka doazen ebazpen guztiak.

Aldaketa hori sinatu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

UAAren 86. artikulutik 90. artikulura xedatutako baldintzen arabera eta aplikagarri izan daitezkeen gainerako arau osagarrien arabera funtzionatuko du Tokiko Gobernu Batzarrak.

BIGARRENA. Bere osotasunean mantentzea ekainaren 27ko 1152 Dekretua, Tokiko Gobernu Batzarra eratzen duena, bai eta eskumenak eskuordetzan ematen dituen ere, erabaki honen xedapenetako lehenengo atalaren aurka ez doan guztian. Dekretu hori aldatu egin zen 2024ko urtarrilaren 9ko 0033 Dekretuaren eta 2025eko irailaren 25eko 1577 Dekretuaren bidez.

Aurrekoarekin bat etorritik, eta aldatutako 1.152 Dekretuaren indarraldiaren jarraitutasuna alde batera utzi gabe, eta udal-zerbitzuei kontsulta errazteko, bertan eskuordetutako eskumenei buruz jasotzen den arauketa errepikatzen da xehetasun honekin, geroko zabaltze, murrizte edo aldaketari kalterik egin gabe:

1) Udal obra eta zerbitzuak zuzendu, ikuskatu eta bultzatzea.

2) Onestea lan eskaintza publikoa, Osoko Bilkurak onetsitako aurrekontuaren eta plantillaren arabera.

3) Onestea langileak hautatzeko nahiz lanpostuak betetzeko lehiaketen probetako oinarriak eta banatzea finakoak eta aldizkakoak ez diren ordainsari osagarriak.

4) Onestea plangintza orokorra garatzeko plangintza tresnak, betiere, esanbidez osokoari esleitu ez bazaizkio, baita hirigintza gaiak eta urbanizazio-proiektuak kudeatzeko tresnak ere.

5) Obren, horniduren nahiz zerbitzuen kontratazioak, obra-emakidak, zerbitzu-emakidak eta administrazio-kontratu bereziak, kasu hauetan:

- Kontratuen balio zenbatetsiak ez duenean gainditzen aurrekontuko baliabide arruntek ehuneko 10.

- Balio zenbatetsiak ez duenean gainditzen 6.000.000,00 euroko zenbatekoa.

- Luzapenak barne hartuta, lau urte baino gehiago irauten ez duten urte anitzeko kontratuak, betiere, urte guztietako zenbatekoen baturak ez badu kontratuaren lehen urteko aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 gainditzen eta, edonola ere, ez baditu 6.000.000,00 euroak gainditzen.

Nolanahi ere, ez dira inoiz eskuordetuko administrazio-contratazioari buruzko legegintzan aurreikusitako kontratu txikien gainekoak.

6) Kontratu pribatuak sinatzeko eskumena, baita Audioko Udalaren ondasunen gaineko lagapenak esleitzeko eta ondare-legeen menpeko ondasun higiezinak eta eskubideak eskuratzeko eskumena ere, baldin eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak ez badu gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10, ezta 3.000.000,00 euroko zenbatekoa ere.

7) Ondarea besterentzeko eskumena, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuak ez duenean gainditzen aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10, ezta 3.000.000,00 euroko zenbatekoa ere.

8) Obra eta zerbitzuen aurrekontuak onesteko eskumena, baldin eta horiek kontratatatu edo emateko eskuduna bada, eta aurrekontuan jasoak badaude.

9) Lizentziak ematea, salbu eta sektorean sektoreko legeek Osoko Bilkurari edo Tokiko Gobernu Batzarrari esleitzen badie egintza horren inguruko eskumena. Eskuordetze honetatik kanpo geratzen dira obra txiki deritzenak.

10) Ondare-erantzukizuneko espedienteak ebaztea.

11) Dirulaguntzak emateko espedienteak izapidetzea eta ebaztea. Aurrekoa gorabehera, eskuordetze honetatik kanpo utziko dira eta, ondorioz, alkate-udalburuaren dekretu bidez izapidetu eta ebatziko dira honako laguntza hauek:

- a) Gizarte-larrialdietarako laguntzak.
- b) Jasangarritasunerako Laguntzen Udal Programatik eratorritako laguntzak.
- c) Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei emandako laguntzak.

HIRUGARRENA. 2023ko ekainaren 27ko 1.152 Dekretuan, Tokiko Gobernu Batzarrak astean behin biltzeari buruzkoan, jasotako araudia oso-osorik mantentzea, eta ohiko bilkurak ostiraletan, 9:00etan, egitea.

LAUGARRENA. Argitaratzea erabaki hau ALHAO, UAAren 33,2 artikuluan nahiz AFAren 53,3 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

BOSGARRENA. Jakinaraztea erabaki hau interesdunei, udal talde politikoen bozeramaileei eta udal arloei, eta aditzera ematea erabakia Udalbatzaren Osoko Bilkurari, biltzen den hurrengo egunean.

Laudio, 2025eko uztailaren 3a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ